

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
35 positibo berri	1.623 hildako	59 positibo berri	529 hildako
21.867 EAEn positibo guztira*	2 UCIn EAEn	eguneratu gabe 1 positibo guztira UCIn	Sendatuak EAEn:eguneratu gabe

*Hernanin 72 Astigarragan 24

Bizitzari buruzko metafora oholtza gainera ekarriko du gaurkoan, Markeliñe konpainiaren, 'Crusoe' antzezlanak

Markeliñe konpainiak 'Crusoe' antzezlanak eskainiko du gaur arratsaldeko 19:00etan, Uda Hernanin programazioaren baitan, hain zuzen. Doakoa da, baina gonbidapena beharrezkoa da.

HERNANI UDA HERNANIN

Gaur arratsaldeko 19:00etan, *Crusoe* antzezlanak ikusteko aukera egongo da Atsegindegian. Uda Hernanin programaren baitako ikuskizun «gehienak» doakoak izango dira, eta *Crusoe* haietako bat da, besteak beste. Hala ere, alde zuzenetik gonbidapena eskuratu behar da Biterin. Horretarako, goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00ak arte joan behar da.

«Bizitzari buruzko metafora» Testu klasikoari buelta eman, eta bere uhartean bakarrik dagoen naufragoarekin jolas egiten du Markeliñe konpainiak

Crusoe antzezlanean, «bizitzari buruzko metafora bat eginez». «*Crusoe* bere baliabideak erabiliz, jaten, bestelako inguru-nearekin erlazionatzen eta izaki errealekin eta irudimenezkoekin harremanak izaten ikasiko du. Bere bizitza, gertatzen denak eta bere buruak interpretatzen duenak osatzen dute, eta bi munduak egiazkoak dira maila berean».

Ainhoa Larrañagaren kontzertua, uztailearen 24ean
Ainhoa Larrañagaren kontzertua datuz aldatu da, eta uztailearen 24ean «arratsaldeko 20:00etan hasita» izango dela jakinarazi du Udalak. **K**



Gaur arratsaldeko 19:00etan 'Crusoe' emanaldiaz gozatzeko aukera egongo da. Argazkia: Markeliñe Konpainia.

27.000 euro baino gehiago saldu dira Astigarragako deskontu bonuetan, «bertako kontsumoa bultzatzeko»

Deskontu bonuen kanpaina jarri zuen martxan uztailearen 1ean, Astigarragako Udalak, «bertako kontsumoa bultzatzeko asmoz». Eta jadanik pasa diren bi aste hauetan, 27.000 eurotik gora saldu dira bonuetan.

ASTIGARRAGA DESKONTU BONUAK

Uztailearen 1ean eman zitzaion Deskontu bonuen kanpainari hasiera, Astigarragan. Kanpaina honekin, Astigarragako Udalaren asmoa zen, «herri eta bertako kontsumoa bultzatzea». Bi aste igaro dira, kanpaina hasi zenetik, eta Astigarragako Uda-

lak, bi aste hauetako balantzia egin du eta jakinarazi du, «27.000eurotik gora saldu direla bonuetan». Abuztuaren 31n amaituko da bonuak erosi eta erabiltzeko epea, beraz Udalak azaldu du, «oraindik ere bada goela aukera bertako kontsumoa berpizten laguntzeko» eta herritarrek animatu nahi ditu.

«Bonuen erosketak anitza»

Aipatu moduan, bertako kontsumoa bultzatzeko deskontu kanpainak, bi aste bete ditu, eta Udalak dio «deskontu bonuen erosketak anitzak izan dira, establezimendu mota ezberdinetan egin dituzte herritarrek erosketak».

Eta gainera, hainbat establezimenduetako bonuak agortu dira, hala nola, Alorrenea sagardotegia, Ezpela naturdenda, Habian interiorismo eta Ipintza sagardotegia. Horien artean, %20eko deskontua dute establezimenduak aurkitu daitezke «alarma egoeran itxita egon

«Hamaika establezimenduk 1.000 euro baino gehiagoko salmentak izan dituzte deskontu bonuetan, eta bi 3.000 eurora iritsi dira gainera»

direnak» hain zuzen, eta zure ondoan komertzioak «deskontua euren kaxa jarri dutenak» aurki ditzakegu.

Horrez gain, Astigarragako

Udalak, azpimarratu nahi izan du, hamaika establezimenduk 1.000 euro baino gehiagoko salmentak izan dituztela bonuetan, eta horietako bi 3.000 eurora iritsi direla. Horrekin batera, Udalak, eskerrak eman nahi ditu, «herritarrek zoriondu nahi ditugu, bertako kontsumoa bultzatzeko egiten ari diren lanagatik».

Deskontu bonu hauek, abuztuaren 31ra arte egongo dira eskuragai, guztion.astigarraga.eus/azoka helbidean, eta establezimenduetan bonuak erabiltzeko epea ere hori bera izango dela aipatu du Udalak. **K**

ZUZENEAN ➔ 1

50 GALARRETA **ERREMONTA TXAPELKETA**
Hernaniar guztiak beherapena (sarrera:5€)

UZTAILA 18 Larunbata 15:15

FINALA

GOIKOETXEA V BARRENETXEA IV **JUANENEA ENDIRA** URRUTIA II ARRUARTE

ANSAN I LARRANAGA **ZUBIRI** ZALDUA II ZALDUA

ENDIKA **JUANENEA** **URRIZA** **ZUBIRI**

sukia **DV** **ORIA MENDI** **Orona**

GAUR Eguna eguzkitsu dator eta tenperaturak gora egingo du. Goizetik eguzkia jaun eta jabe izango da. Tenperaturak gora egingo du eta uda sasoko balioetara itzuliko da. **Min.18° / Max.24°**

BIHAR Eguzkitsu eta bero kontuekin dator igandea. Zeru urdinean eguzkia jaun eta jabe izango da eta eguneko tenperaturak beste koska bat egingo du gora. **Min.18° / Max.27°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Dena jokoan, efemeride berezi bat ospatzen den txapelketan

Gaur jokatuko da Galarretaren 50garren urteurreneko txapelketako final handia. Arratsaldeko 15:15etan hasiko dira partiduak.



Zubiri eta Urriza, material aukeraketa egiten, gaurko finalerako.

HERNANI ERREMONTA

Gaur arratsaldeko 15:15etan, zita jarri du Oriamendik, Galarretan, 50garren urteurreneko txapelketaren finala jokatuko baita. Hala ere, finalari arratsaldeko 16:15etan emango zaio hasiera.

Pasa den asteburuan, Aritz Zubiri goizuetarrak eta Urrizak garaipena lortu zuten, Ansa II

eta Larrañagaren aurka, eta garaipen horrekin gaurko finalerako pasea lortu zuten. Hori horrela, Urriza eta Zubiri txapelaren bila ariko dira gaurkoan, Juanea eta Endikaren kontrako partiduan. Izan ere, haiek izan ziren ligaxkan aurreneko sailkatuak eta beraz, ez dute partidua erraza izango Zubiri goizuetarrak eta Urrizak, txapela

lortzeko. Lehenengo partidua, 15:15etan hasiko da, Goikoetxea V eta Barrenetxea IVak, Ansa II eta Zalduaren aurka jokatuko dute. 16:15etan final handia jokatuko da, eta behin hau amaituta, partidua berezi bat jokatutako da, debuta egingo baitu Aitor Zaldua II donostiarrak, Zalduarekin batera, Urrutia II eta Arruarteren aurka. **K**

Izena eman daiteke, Doberak antolatu dituen udalekuetan

HERNANI DOBERAKO UDALEKUAK

Abuzturako, Udaleku Irekiak ekimena antolatu du Dobera Euskara Elkarteak. Udaleku hauek, asteleheneetik ostirale-ira izango dira, «abuztuak 3-7, 10-14, 17-21 eta 24-28 izango dira udaleku asteak», hain zuzen. Izena emateko aukera uztailaren 24ra arte egongo da eta www.dobera.eus webgunean egin daiteke. Informazio gehiagorako, 943 33 27 99ra deitu edo idatzi dobera@dobera.eus helbidera.

Izaki Gardenak gaur, Astarben

ASTIGARRAGA SAGARKULTUR

Gaur hasiko da Sagarkultur ekimena, eta lehenengo emanaldia eskainiko du Izaki Gardenak taldeak, Astarbe Sagardotegian, 22:30etan hasita.

† DIEGO BARRAGÁN MERCÉ
2020ko apirilaren 26ean hil zen, 59 urte zituela.
- Goian bego -
Gurasoak: María eta Diego (†); seme-alabak: Saioa eta Dominik, Ander eta María; bilobak: Alexander eta Marina; anai-arrebak: Ramón eta Maika, María Rosa eta Justo, Lurdes eta Alberto, Jose Angel eta Puri; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, LARUNBATA** arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JUAN BAUTISTA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernani, 2020ko uztailaren 18an



NOAOA BIDAIAK
Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA, Gipuzkoa
Ordutegia: 09:30-13:30
Aurreko hitzordua beharrezkoa da
943 37 36 13 info@noaoa.eus

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† JOXEMARI ARMENDARIZ ARTUZAMUNOA
(Anamari Elorzaren alarguna)
2020ko uztailaren 17an hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian bego -
Seme-alabak: Lourdes eta Juankar Plazaola, Iñaki eta Arantza Zubeldia; bilobak: Magali, Maialen eta Udane; anai-arrebak: Pedro(†), Martina(†), Joseba(†), Xabier, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JUAN BAUTISTA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernani, 2020ko uztailaren 18an
OHARRA: Gorputza HERNANIKO VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da gaurko 09:00ak arte.



JOXEMARI ARMENDARIZ ARTUZAMUNOA
Ez zaitugu ahaztuko
SANTA BARBARA ELKARTEA
Hernani, 2020ko uztailaren 18an



† X. URTEURRENA
Bitoriano Oskoz Iturria
2010eko uztailaren 14an hil zen, 77 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.
- Goian bego -
Beti egongo zara gure bihotzean, ez gara inoiz ahaztuko zutaz.
Urteurreneko meza, **BIHAR, IGANDEA, goizeko 10:00etan, Ereñotzuko SAN ANTONIO** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Ereñotzun, 2020ko uztailaren 18an



† I. URTEURRENA
Antonio Aramburu Arruabarrena
2020ko apirilaren 23an hil zen.
Etxekoak gogoan zaitugu.
Urteurreneko meza, **BIHAR, IGANDEA, goizeko 12:00etan, JOAN BATAIATZAILE** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Hernani, 2020ko uztailaren 18an



IRAGARKI MERKEAK

Bi gelako pisua alokatzen da Hernani. Informazio gehiagorako deitu zenbaki honetara: **605729122**
Garajea alokagai, anbulatorioaren ondoan, kotxe batentzat. **90 euro hilean.** Argi gastua, urtean 60 euro. Deitu: **943 55 04 71**
Neska euskalduna haurrak zaindu eta klase partikularrik emateko prest, deitu: **618119781**
Langile bat behar da **URGENTE-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA**, esperientziarekin, gidatzeko kameta eta prebentzioko kurtsoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA
Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora
24 orduko tlfnoa. **943 33 10 20** www.funerariaorbegozo.com Zentrala - Latsunbe 7, Hernani
* Zerbitzu partikularrik eta aseguru etxeekin
* Beilatokiak
* Errausketak
* Lekualdatzeak
* Eskelak, koroak...
HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

